



## ESKOLA-KIROLEKO LEHIAKETAK ETETEARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA

Gipuzkoako Foru Aldundiak honekin batera doan Foru Agindua argitaratu ondoren, Gipuzkoako Futbol Federazioak honako hau jakinarazten du:

- **Legeak hala aginduta, urtarrilaren 28ra arte bertan behera geratzen dira gizonezkoen eta emakumezkoen Lehenengo Infantil, alebinetako eta benjaminen lehiaketak.**
- **Infantilen Ohorezko mailako (gizonezkoak eta emakumezkoak) eta Infantil Txikien lehiaketei dagokienez, lizentzia federatua dutenez, federazio honek idatziz galdetu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari ea etenaldiak kategoria horiek ere barne hartzen dituen.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentuak ziurtatu digunez, bihar, ostirala, 09:30ak baino lehen, behin betiko erantzuna emango dio gai horri. Jakinarazpen hori jaso ondoren eta ahalik eta lasterren, klub guztiei jakinaraziko zaie.

Federazio honen borondatea da bertan behera utzitako jardunaldiak eta gerora geratuko direnak berreskuratzea, Foru Agindu honen ondorioz **PARTIDURIK GALDU EZ DADIN KATEGORIA EZBERDINETAN.**

Gipuzkoako Futbol Federazioak dagoeneko jakinarazi die klubei, erakundeei eta iritzi publikoari **ez dagoela inondik inora hartu diren neurriekin ados,** Arabako eta Bizkaiko futbol federazioekin batera sinatutako oharrean.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 13a